

JANASKE

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua martxan jarri ahal izateko, baliabide ugari izan beharko ditugu eskuragarri:

7.1. BALIABIDE FISIKOAK

Gure enpresa aurrera eramateko leku bat beharrezkoa izango da, non sukalde bat egongo den, janaria prestatu edota berotu ahal izateko. Janaritegi bat, izozkailu, hozkailu eta plater-ikuzgailu bat, komun bi eta psikoloarekin batzarrak edukitzeko gela pribatu bat. Jangela handi bat egongo da non 150 pertsona jan ahal izango dute; baina, 150 pertsona baino gehiago jan ahal izango dute egunean; txanda ezberdinak egingo ditugulako. Azpilen bitartez zerbitzatuko ditugu, horrela bakarkako zerbitzu bat emanez, hau da, harreman pertsonalagoa. Jangelan, mahai tresnak egon beharko dira, mahiak, mantelak, baxuak, ahozapi, azpilak eta garrantzitsuena dena, gailu hauek guztiak gordetzeko armairu eta kaxoiak. Azkenik, jantokia garbi egoteko eta platerak garbitu ahal izateko garbitzeko produktuak erosi beharko ditugu, adibidez, Fairy, erratza, zoru-garbigailua, mopa...



JANTOKI SOZIALA ERAIKIKO DEN LEKUA

7.2. BALIABIDE INTELEKTUALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Sukaldariak: Naroa izango da sukaldearen arduraduna, hau da, sukaldatu zein praktketan dauden sukaldariei zer egin eta nola esango die. Naroa sukaldari ederra da, hiru izar dituzten jatetxeetan lan egin du eta sukaldaritza klase batzuk eman ditu irakasle moduan. Oso ondo moldatuko dela sukaldearen kontuarekin uste dugu.

Psikologa: Inge izango da bakarkako elkarrizketak izango dituena gure bezeroekin. Pertsona gaitua da gai hauetako lanetan, psikologia ikasketa dituelako eta tratu sozialean oso ondo moldatzen delako.

Ekonomia: Ekonomia Indara eta Aitorren artean kudeatuko da. Aitorrek ekonomia eta matematika karrerak ikasi ditu, horrela, diru kontuekin oso trebea izatea ahalbidetu duena. Bestalde, Indarak ekonomia eta zuzenbide ikasketak atera ditu. Ekonomian ona izateaz gain, dena legez barruan edukitzen lagunduko du, jantoki sozial seguru eta behar bezalako edukiko dugu.

Marketing-a: Peiok eramango du gure proiektuaren marketin kontuak. Marketineta publizitate ikasketak dituenek, kaleko publizitateaz eta kartelak diseinatu eta inprimatzeaz arduratuko da. Klean bizitzen den jendearen aurrez-aurreko elkarrizketa gure proiektua azaltzeko ere egingo ditu.

Garbiketa: Garbitzaile batzuk kontratatuko ditugu jantoriaren garbiketa egiteko. Langabezian dauden jendearekin kontaktuak jarriko gara, eta horrela, arazoak dituzten beste batzuei ere lagunduko diegu.

7.3. FINANTZA-BALIABIDEAK

Hasiera batean, lekua alokatu eta berrikuntzak egiteko bosten diru-kontu bat egingo dugu eta donazioak edota Eusko Jaurlaritzaren, Udalaren, Estatuaren diru-laguntzak lortu arte bakoitzak inbertituko duen diruarekin funtzionatuko dugu. Berrikuntzak egiterako momentuan, hau da, jantokia zabaldu baino lehen kartelak diseinatu eta inprimatuko ditugu, Durangaldeko herrietatik jarriz. Jendeari gure jantokia ahalik eta arinen ezagutzea saiaturiko gara, horrela jendea donazioak egin ahal izango dituzte, nahi ezker eta horri ezker, diru-sarrerak izango ditugu jantokiaren sorrerarekin hasteko.